

**3.- AURREIKUSPEN EKONOMIKOAK**

Atal honetan honako alderdi hauek jaso dira: Nazioarteko Moneta Fondoak (NMF) 2011-2014 epealdirako nazioarteko ekonomiari buruz egin dituen aurreikuspenak, Espainiako Ekonomia eta Ogasun Ministerioek datorren urterako prestatutako egoera makroekonomikoa, Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako gobernuek egin dituzten aurreikuspenak, eta azkenik, Gipuzkoako Foru Aldundiak datorren ekitaldiko sarreren aurreikuspena egiteko Gipuzkoako ekonomian kontuan hartu dituen aldagaiak.

**3.1.- NMF****3.- PREVISIONES ECONÓMICAS**

En este apartado se recogen las previsiones económicas internacionales para el periodo 2011-2014 realizadas por el Fondo Monetario Internacional, el escenario macroeconómico para el próximo año elaborado por los Ministerios españoles de Economía y de Hacienda, las previsiones del Gobierno Vasco, las previsiones del Gobierno de Navarra y las variables de la economía del Territorio Histórico que la Diputación Foral de Gipuzkoa ha tenido en cuenta para la previsión de sus ingresos en el próximo ejercicio.

**3.1.- FMI**

**3.1.1. taula.- NMF: Nazioarteko ekonomiaren aurreikuspenak**  
**Cuadro 3.1.1.- FMI: Previsiones económicas internacionales**

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2011	2012	2013	2014
<b>BPG (Bolumen %-aren Δ) / PIB (Δ % volumen)</b>				
Mundu osoa / Total mundial	3,9	3,2	2,9	3,6
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	1,7	1,5	1,2	2,0
Estatu Batuak / Estados Unidos	1,8	2,8	1,6	2,6
Japonia / Japón	-0,6	2,0	2,0	1,2
Erresuma Batua / Reino Unido	1,1	0,2	1,4	1,9
Euroaren eremua / Zona euro	1,5	-0,6	-0,4	1,0
Garapen bidean dauden herriak eta indartzen ari diren merkatuak / Países en desarrollo y mercados emergentes	6,2	4,9	4,5	5,1
<b>KONTSUMO PREZIOAK / PRECIOS CONSUMO (Δ %)</b>				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	2,7	2,0	1,4	1,8
Estatu Batuak / Estados Unidos	3,1	2,1	1,4	1,5
Japonia / Japón	-0,3	0,0	0,0	2,9
Erresuma Batua / Reino Unido	4,5	2,8	2,7	2,3
Euroaren eremua / Zona euro	2,7	2,5	1,5	1,5
Garapen bidean dauden herriak eta indartzen ari diren merkatuak / Países en desarrollo y mercados emergentes	7,1	6,1	6,2	5,7
<b>LANGABEZIA / DESEMPLEO</b>				
Ekonomia aurreratuak / Economías avanzadas	7,9	8,0	8,1	8,0
Estatu Batuak / Estados Unidos	9,0	8,1	7,6	7,4
Japonia / Japón	4,6	4,4	4,2	4,3
Erresuma Batua / Reino Unido	8,0	8,0	7,7	7,5
Euroaren eremua / Zona euro	10,2	11,4	12,3	12,2
<b>MUNDUKO MERKATARITZA (bolumen %-aren Δ)</b>				
<b>COMERCIO MUNDIAL (Δ % volumen)</b>	6,1	2,7	2,9	4,9

Iturria: Nazioarteko Moneta Fondoak (NMF).

Fuente: Fondo Monetario Internacional (FMI).

NMFak urrian munduko ekonomiarentzat argitaratu zituen aurreikuspenek %2,9ko eta %3,6ko hazkunde tasak iragarri zuten, hurrenez hurren, 2013 eta 2014 urteetarako. Nazioarteko testuinguru

Las previsiones que el FMI realizó en octubre para la economía mundial establecen unos crecimientos del 2,9% y el 3,6% para 2013 y 2014, respectivamente. En el contexto económico internacional, numerosos riesgos e



ekonomikoan, badaude oraindik arrisku eta ziurgabetasun asko, epe laburrean eta ertainean taula makroekonomiko horri kalte egin diezaioketenak. Europako zorraren krisia lasta bat izango da oraindik munduko ekonomiaren hazkunderako, baina ez da arrisku nagusia izango. Kezka nagusia Siriako gerra zibilean eta gatazka horrek ekarriko dituen ondorioetan fokatu da. Iranekin dauden tentsioek ere petrolioaren salneurrian ustekabeko aldaketak ekar ditzakete. Kontuan hartu behar den beste alderdi bat Txinako ekonomiaren moteltzea da eta horrek munduko ekonomian izan ditzakeen ondorioak.

AEBetan, ekonomia %1,6aren inguruan haziko da 2013an eta %2,6ra bizkortuko da 2014an. Aurrekontuetako murrizketen eragin negatiboa garrantzitsua izango da 2013an, baina lasta hori 2014an zehar leunduko da. Hain zuzen ere, 2013an gastu publikoa %3,0aren inguruan gutxituko da 2014an, berriz, egonkortzera joko du. Kontsumo pribatuak aurrera egingo du datozen hiruhilekoetan. Dagoeneko hauteman da kreditua lortzeko nolabaiteko erraztasuna. Halaber, aberastasun efektuak eta konfiantzaren igoerak familien kontsumoa bultzatuko dute. Enpresen inbertsioan, etxegintzaren inbertsioak bultzada bizia ezagutuko duela aurreikusten da, sektorearen susperraldia baieztatuz.

Eurogunearen egoerak hobera egin du azken epealdietan eta etorkizunari buruzko igurikimenak ez dira horren ezkorrak orain. Iritzi orokorra negatiboa da oraindik, baina, Europako diru batasunak ezarri dituen politiken ondorioz, zor subiranoaren krisia berriro agertzeko probabilitatea oso nabarmen murriztu da. Euroguneko ekonomiaren hazkundeaz egin diren azken aurreikuspenek %0,4ko jaitziera espero dute 2013rako. 2014an, berriz, urte arteko hazkunde tasa positiboak espero dira, urteko batez bestean %1,0tik hurbil egongo den gehikuntza tasa bat ekarriko duena

incertidumbres se encuentran activos, pudiendo afectar en el corto o medio plazo a este cuadro macroeconómico. La crisis de la deuda europea continuará siendo un lastre para el crecimiento económico mundial, pero no será el principal riesgo para la economía. La principal preocupación se centra ahora en la situación de la guerra civil en Siria y los efectos negativos del conflicto. También las tensiones con Irán pueden provocar alteraciones inesperadas en los precios del petróleo. Otro aspecto a seguir será la desaceleración de la economía china y las consecuencias que esta ralentización pueda tener en la economía mundial.

En Estados Unidos, la economía crecerá en torno al 1,6% en 2013 y se acelerará hasta el 2,6% en 2014. El impacto negativo de los recortes presupuestarios será intenso en 2013, pero ese lastre se suavizará a lo largo de 2014. Efectivamente, el gasto público total descenderá en torno al 3,0% en 2013 y se mantendrá estable durante 2014. El consumo privado irá avanzando en los próximos trimestres. Ya se va apreciando una mejora en el acceso al crédito que junto al efecto riqueza y el aumento de la confianza impulsarán el consumo de los hogares. En la inversión empresarial, se pronostica una intensa expansión en la construcción residencial, que confirmará la recuperación del sector.

La situación de la zona del euro ha mejorado en los últimos periodos y las expectativas sobre su evolución económica son menos pesimistas. La percepción sigue siendo negativa, pero, como resultado de las políticas aplicadas en la unión monetaria europea, la probabilidad de que resurja la crisis de deuda soberana ha disminuido considerablemente. Las últimas previsiones sobre el crecimiento económico en la zona de euro establecen una caída del 0,4% para 2013. Durante 2014, se esperan tasas interanuales positivas de crecimiento, que llevarían a un avance cercano al 1,0% en media anual.



### 3.2.- 2013-2014 EPEALDIRAKO ESPAINIAKO ESTATUKO TAULA MAKRO-EKONOMIKOA

Espainiako estatuan, hazkunde aurreikuspena 2013rako  $-1,3\%$ aren inguruan kokatuta dago. Datorren urtean, berriz, aurreikusten den aldakuntza tasa positiboa izango da,  $0,7\%$ . Hiruhilekoka aztertuta, hazkunde positiboak 2013ko hirugarren hiruhilekotik aurrera espero dira. Ondorengo hiruhilekoetan ere tasa positiboak lortuko dira, baina apalak. Agregatuen joerak iradokitzen du nazio eskariak ekarpen negatibo txikiagoa egingo duela eta kanpo arloak, berriz, ekarpen positiboa. Nazioarteko ingurunearen susperraldiak, batez ere Eurogunearnak, kanpo eskaria biziagotuko du, estatuko produktuen salmenta areagotuz atzerriko merkatuetan. Barne eskariak bere jaitziera leuntzen jarraituko du eta 2014ko bigarren seihilekoan ekingo dio hazteari, nahiz eta hazkunde hori ahula eta txikia izango den. Arlo publikoa ezin izango da lasaitu epe laburrean eta ahalegin garrantzitsuak egingo ditu defizit publikoa murrizteko.

Lan merkatuari buruzko aurreikuspenak zertxobait hobetu dira aurreko hiruhilekoetan argitaratu zirenekin alderatuta. Izan ere, enpleguari dagokionez, aurreikuspenak  $-3,4\%$ an eta  $-0,2\%$ an kokatu dituzte, hurrenez hurren, 2013ko eta 2014ko tasak. Beste aldetik, langabezia tasa beherantz zuzendu da eta 2013an  $26,6\%$ an kokatuko dela espero da, datorren urtean  $25,9\%$ ra jaitziko delarik.

### 3.2.- CUADRO MACROECONÓMICO DEL ESTADO ESPAÑOL PARA EL PERIODO 2013-2014

En el Estado español, la previsión de crecimiento para el promedio de 2013 se coloca en torno al  $-1,3\%$ . Para 2014, la tasa de variación esperada será positiva,  $0,7\%$ . A nivel trimestral, se espera que los crecimientos sean positivos a partir del tercer trimestre de 2013. Los trimestres posteriores mantendrán tasas positivas, pero modestas. La tendencia de los agregados sugiere una aportación menos negativa de la demanda nacional y una aportación positiva del sector exterior. La recuperación del entorno internacional, especialmente de la zona del euro, dinamizará la demanda externa, favoreciendo las ventas de productos estatales en mercados extranjeros. La demanda interna continuará moderando su caída para comenzar a crecer en el segundo semestre de 2014, aunque de forma débil y lenta. El sector público no se podrá relajar en el corto plazo y continuará con importantes esfuerzos para contener el déficit público.

Las perspectivas sobre el mercado laboral han mejorado ligeramente respecto a las publicadas en trimestres anteriores. Así, respecto al empleo, la Administración ha establecido unas previsiones para 2013 y 2014 del  $-3,4\%$  y el  $-0,2\%$ , respectivamente. Por otra parte, la tasa de paro se ha revisado a la baja y se prevé un desempleo del  $26,6\%$  en 2013 y del  $25,9\%$  en 2014.



**3.2.1. taula.- Estatuko proiektzio makroekonomikoak**  
**Cuadro 3.2.1.- Proyecciones Macroeconómicas del Estado**

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	2012	2013	2014
<b>BPG ETA GEHITUAK (BENETAKO %-ren <math>\Delta</math>) / PIB Y AGREGADOS (<math>\Delta</math> % REAL)</b>			
Amaierako kontsumo nazionalaren gastua / Gasto en consumo final nacional	-3,3	-2,5	-0,6
-Familien amaierako kontsumoaren gastua / Gasto en consumo final hogares (1)	-2,8	-2,6	0,2
-Amaierako kontsumo publikoaren gastua / Gasto en consumo final público	-4,8	-2,3	-2,9
Kapital eraketa gordina / Formación Bruta Capital	-6,9	-6,1	0,2
Izakinen bariazioa / Variación existencias (2)	0,0	0,0	0,0
Barruko eskaria/ Demanda interna	-4,1	-3,2	-0,4
Ondasun eta zerbitzuen esportazioa / Exportación de Bienes y Servicios	2,1	5,7	5,5
Ondasun eta zerbitzuen inportazioa / Importación de Bienes y Servicios	-5,7	-0,3	2,4
Kanpoko saldoa/ Saldo exterior (2)	2,5	1,9	1,2
Barne produktu gordina / Producto Interior Bruto	-1,6	-1,3	0,7
BPG (m.m. euro korrontetan) / PIB (m.m. euros corrientes)	1.029,0	1.026,2	1.047,4
<b>PREZIOAK ETA KOSTUAK (<math>\Delta</math> %) / PRECIOS Y COSTES (<math>\Delta</math> %)</b>			
BPGren deflaktatzailea / Deflactor del PIB	0,0	1,0	1,3
<b>LAN MERKATUA / MERCADO DE TRABAJO</b>			
Enplegua, guztira (bariaz. %tan) / Empleo Total (variac. en %)	-4,8	-3,4	-0,2
Langabezia (biztanleria aktiboaren %) / Paro (% de la población activa)	25,0	26,6	25,9

(1) Etxeen zerbitzura dauden irabazi asmorik gabeko erakundeak sartzen dira / Incluye las instituciones sin fines de lucro al servicio de los hogares

(2) BPGren hazkunderako laguntza / Contribución al crecimiento del PIB.

### 3.3.- EUSKO JAURLARITZA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak EAEko ekonomiaren 2013rako eta 2014rako taula makroekonomikoa berritu du. Bi urteetan, goranzko zuzenketa bat egin du, tamaina berekoa: hamarren bat. Beraz, ekonomiak %-1,1eko jaitsiera nozituko duela 2013an espero da, eta 2014an susperraldi txiki baina etengabea hasiko dela aurreikusten da, ordurako tasa positiboak jasota, urteko batez bestean hazkundera %0,9ra iritsiz. Hiruhileko arteko tasa positiboak, hots, atzeralditik irteteko unea, 2013ko hirugarren hiruhilekoan gertatuko dela espero da.

### 3.3.- GOBIERNO VASCO

La Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco ha revisado el cuadro macroeconómico de la economía vasca para los años 2013 y 2014. En ambos años, la corrección se ha efectuado al alza y es de la misma cuantía: una décima. Así, se prevé que la economía sufra una caída del -1,1% en 2013 y que en 2014 se iniciará una lenta pero continua recuperación, ya con tasas positivas, que permitirá cerrar el año con un crecimiento promedio del 0,9%. La presencia de tasas intertrimestrales positivas, es decir, la salida oficial de la recesión, está prevista para el tercer trimestre de 2013.



**3.3.1. taula.- EAE-KO EKONOMIARAKO AURREIKUSPENAK**  
**Cuadro 3.3.1.- PREVISIONES PARA LA ECONOMÍA VASCA**

KONTZEPTUAK / CONCEPTOS	III tri./hir. 2013	IV tri./hir. 2013	2013	2014
BPG / PIB	-1,0	-0,3	-1,1	0,9
Azken kontsumoa / Consumo final	-1,1	-0,7	-1,0	0,4
Kontsumo pribatua / Consumo privado	-0,6	-0,1	-0,8	1,0
Kontsumo publikoa / Consumo público	-2,9	-2,8	-1,9	-1,9
Kapital eraketa gordina / Formación bruta de capital	-3,4	-2,2	-3,6	-0,5
Barne eskariaren ekarpena / Aportación demanda interna	-1,6	-1,0	-1,6	0,2
Kanpo saldoaren ekarpena / Aportación saldo exterior	0,7	0,7	0,5	0,7
Lehen arloa / Sector primario	6,3	10,9	2,6	2,7
Industria eta energia / Industria y energía	-1,8	-0,7	-2,0	1,5
Eraikuntza / construcción	-5,8	-4,7	-6,0	-2,9
Zerbitzuak / Servicios	-0,4	0,1	-0,5	1,0
Balio erantsi gordina / Valor añadido bruto	-1,2	-0,5	-1,3	0,8
ekoizkimen gaineko zerga / Impuesto sobre productos	-0,1	0,6	-0,2	1,2
BPGaren deflatoarea / Deflactor PIB	1,3	1,1	1,2	1,3
Enplegua / Empleo	-2,0	-1,4	-2,2	-0,5
Langabezia tasa / Tasa de paro	14,7	14,5	14,4	14,2

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza.  
Fuente: Dirección de Economía y Planificación del Gobierno Vasco.

Barne eskariak jaitsiera moteltzeko joerari eutsiko dio eta 2014. urtean zehar beraren susperraldia egiaztatuta geratuko da, BPGaren hazkunderi ekarpen positiboak egingo dizkiolako. Hala ere, ekarpen positibo horrek ahultasuna erakutsiko du aurreikuspen hau egiteko orduan kontuan hartu den epealdiaren azken hiruhilekoetan. Kontsumo pribatua pausoz pauso suspertuko da, kontsumitzaileen konfiantza hobetuko den heinean, finantza aberastasun garbia igoko den, interes tasa apaleko eta inflazio tentsiorik gabeko testuinguru batean. Lan merkatuak biziko duen egoera txarrak familien baikortasuna ilunduko du.

Administrazio publikoen gastuak estututa jarraituko dute, bai hazkunde aurreikuspenak ahulak direlako eta baita aurrekontu egonkortasuna eta finantza publikoen

La demanda interna de Euskadi mantendrá un perfil de moderación en la caída y a lo largo de 2014 se confirmará su recuperación, con el registro de aportaciones positivas al crecimiento del PIB. No obstante, esta contribución positiva mostrará un dinamismo débil en los últimos trimestres del horizonte de previsión contemplado. El consumo privado se irá recuperando de forma paulatina a medida que vaya mejorando la confianza de los consumidores, en un contexto de aumento de la riqueza financiera neta, el bajo nivel de los tipos de interés y la ausencia de presiones inflacionistas. El optimismo en los hogares se verá ensombrecido por la mala situación por la que seguirá atravesando el mercado laboral.

El gasto realizado por las administraciones públicas continuará constreñido por las débiles expectativas de crecimiento y el complejo marco legal para



jasangarritasuna bermatzeko marko legala konplexua delako ere. Enpresen inbertsioak suspertzeko zantzuak erakutsiko ditu oraingo taula makroekonomikoan kontuan hartu diren hiruhilekoetan. Barne escariaren hazkunde txikiak eta kredituak emateko orduan espero den malgutasun handiagoak agregatu horren gehikuntza neurritsua ahalbidetuko dute. Ekipamenduan eginiko inbertsioa izango da kapital eraketa gordinaren osagairik dinamikoena. Aitzitik, eraikuntzan eginiko inbertsioak lasta garrantzitsua izango da eta agregatu osoaren hazkunde handiago bat eragotziko du.

Kanpo eskariak ekarpen positiboa egingo dio EAEko barne produktu gordinari aurreikuspen honetan kontuan hartu den epealdi osoan zehar. Munduko ekonomiaren hazkundeak bultzada garrantzitsua emango die EAEko esportazioei. Inportazioak, berriz, areagotuko dira barne eskaria suspertuko den heinean.

Eskaintzari dagokionez, sektore guztiek, lehen arloak izan ezik, ekarpen negatiboa egingo diote EAEko balio erantsi gordinaren hazkudeari 2013an zehar. Aurtengo amaieran aurkeztuko duten jaitsiera txikia hazkunde leun bihurtuko da 2014ko lehen hiruhilekoetan. Hilabeteak aurrera joango diren heinean, susperraldi hori sendoagoa izango da. Bizitasun neurritsuko joera horren salbuespena eraikuntza izango da, narriadura garrantzitsua erakutsiko baitu aurreikuspen epealdi osoan. Industriak hazteko joera hartuko du barne zein kanpo eskarien hobekuntzari esker. Urteko batez bestean, industriaren aldakuntza tasa %-2,0 izango da 2013an eta %1,5, berriz, datorren urtean. Zerbitzuek ere narriadura leunduko dute eta hazkunde tasa %-0,5ean kokatuko da 2013an eta %1,0an, berriz, 2014an.

Lan merkatuaren aldagaien berrikusketak enpleguaren aldakuntza tasa %-2,2an utzi du 2013. urtean. Lanpostuen galerak aurrera egingo du 2014. urtea amaitu arte. Beste aldetik, langabezia tasa 2013an %14,4ra igoko dela aurreikusten da eta 2014an

garantizar la estabilidad presupuestaria y la sostenibilidad de las finanzas públicas. La inversión empresarial mostrará signos de recuperación durante los trimestres considerados en el actual cuadro macroeconómico. El ligero avance de la demanda interna y una mayor flexibilidad crediticia permitirán una moderada expansión de este agregado. El componente de inversión en equipo será el elemento más dinámico de la formación bruta de capital. En el sentido contrario, la inversión en construcción supondrá un importante lastre que impedirá un mayor crecimiento global.

La demanda externa contribuirá positivamente al crecimiento del PIB vasco durante todo el horizonte temporal. El avance de la economía mundial supondrá un importante impulso para las exportaciones vascas. Las importaciones, por su parte, se incrementarán a medida que la demanda interna repunte.

En lo referente a la oferta, todos los sectores, a excepción del primario, tendrán una aportación negativa al crecimiento del valor añadido bruto vasco durante 2013. La moderada caída que presentarán a finales de ese año se transformará en ligero avance en los primeros trimestres de 2014. Con el transcurrir de los meses, esa recuperación tenderá a consolidarse. La excepción a ese perfil de moderado dinamismo será el sector de la construcción, que mantendrá un importante deterioro durante todo el periodo de predicción. La industria tendrá una tendencia creciente gracias a la mejora de la demanda interna y de la externa. En términos medios anuales, la variación del sector industrial será del -2,0% y en torno al 1,5% para 2013 y 2014, respectivamente. Los servicios también moderarán su contracción y su tasa de crecimiento se situará en el -0,5% en 2013 y el 1,0% en 2014.

La revisión de las variables relativas al mercado laboral ha establecido una contracción del empleo en 2013 del -2,2%. La destrucción de empleo continuará de forma moderada hasta finales de 2014. Por otra parte, la tasa de paro se proyecta hasta el



zertxobait jaitsiko da, urteko batez bestean %14,2an kokatu arte.

### 3.4.- NAFARROAKO GOBERNUA

Une honetan nolabait egonkortzen hasia da ekonomia, baina hainbat eta hainbat parametrotan esperantza seinale xumeak azaldu arren, 2014a urte zaila eta korapilatsua izango da oraindik ekonomiari eta enpleguari dagokionez, urteko bigarren seihilekoan hobetuz joateko itxurarekin hala re, epealdi horretarako urte arteko eta hiruhileko arteko hazkunde txikiak espero baitira Nafarroako ekonomian.

Nafarroan 2014rako dauden aurreikuspen makroekonomikoek %0,6ko hazkunde ekonomiko positiboa iragartzen dute, 2013ko itxierarako kalkulatzan den BPGren hazkundera negatiboa den bitartean (-%1,4). Estimazio hori, bestalde, bat dator hainbat organismoek Espainia osorako egindako aurreikuspenekin. Estimazio horren oinarrian Europako industriak datozen hilabeteetan suspertzea finkatuko duen konfiantza dago, kontuan izanda Nafarroak eurogunearekin duen harreman estua, bertara bideratzen baititu esportazio gehienak. Enpleguari dagokionez, negatiboa izaten jarraituko duela aurreikusten da (-%1,2), baina ez dela izango aurtengoa bezain negatiboa (-%2,4). Hala ere, datu hori alda daiteke lan merkatuaren marko instituzionaleko aldaketen ondorioz. Azkenik, 2014rako aurreikusitako KPI %1,6koa da, aurtengo ekitaldirako emandako estimazioa baino hamarren bat txikiagoa (%1,7).

### 3.5.-GIPUZKOAKO ALDUNDIA

Gipuzkoako ekonomiari dagokionez, 2014an inguruko ekonomien antzeko hazkundera espero da: barne produktu gordina %0,9 inguru haziko da termino errealetan, eta %2,2 inguru termino korronteetan.

Diru sarrera eszenarioa zerga itunduengatik 2014-2017 epealdirako jarrian aipatzen dena da:

14,4% en 2013, con un moderado descenso en 2014 para situarse de término medio en el 14,2%.

### 3.4.- GOBIERNO DE NAVARRA

En el momento actual comienza a haber una cierta estabilización económica, pero a pesar de las tímidas señales esperanzadoras que se observa ya en muchos parámetros, todavía 2014 será un año difícil y complicado en términos económicos y de empleo, que podrá ir mejorando algo en el segundo semestre del año, donde ya se esperan ligeros crecimientos intertrimestrales e interanuales de la economía de Navarra.

Las previsiones macroeconómicas de Navarra para 2014 establecen un crecimiento positivo de la economía de un 0,6%, frente al PIB negativo (-1,4%) con el que calcula se cerrará 2013. Una estimación que coincide con las previsiones que diferentes organismos plantean para el conjunto de España. Esta previsión se basa en la confianza en que la industria europea consolide en los próximos meses su recuperación, dada la estrecha relación comercial que mantiene Navarra con la zona euro, a la que destina la mayor parte de sus exportaciones. En lo que se refiere al empleo, la previsión es que seguirá siendo negativa (-1,2%), aunque en menor medida que la de este año (-2,4%). No obstante, este dato puede verse modificado por el efecto de los cambios en el marco institucional del mercado laboral. Finalmente, el IPC previsto para 2014 se sitúa en el 1,6%, una décima menos de la estimación dada para este ejercicio (1,7%).

### 3.5.- DIPUTACIÓN DE GIPUZKOA

Por lo que se refiere a la economía guipuzcoana, en 2014 se estima un crecimiento similar al entorno, con incrementos del PIB alrededor del 0,9% en términos reales y del 2,2% medido en términos corrientes.

El escenario de ingresos por tributos concertados para el periodo 2014-2017 es el siguiente:



2014rako zerga itunduengatik izango diren diru sarrerak aurreikusterakoan arau aldaketa hauek hartu dira kontuan: PFEZean aldatu egin dira aurrezpenaren oinarri likidagarriari aplikatzen zaion eskala eta mezenasgo jardueren kenkaria; aberastasunaren eta fortuna handien gaineko zerga sortu da; eta zerga bereziak aldatu dira.

Bestalde, nabarmentzekoa da 2014. urtea izango dela Rover enpresaren kasuagatik Estatuari itzulketa berezirik egingo ez zaion lehen ekitaldia.

Hori horrela, 2014an Gipuzkoako Foru Aldundiaren baliabide erabilgarriak (zerga itunduengatik izando diren diru sarrerak, Erakundearteko Konpromisoak murriztuta) 617 milioi izango lirateke, hau da, 2013aren aldean %7,9 handituko lirateke.

Para calcular la previsión de ingresos por tributos concertados para el ejercicio 2014 se tienen en cuenta las siguientes modificaciones normativas: en el IRPF se han modificado tanto la base liquidable del ahorro como la deducción por actividades del mecenazgo; se ha establecido el nuevo Impuesto sobre la Riqueza y las Grandes Fortunas; y se han modificado los impuestos especiales.

Por otra parte, hay que destacar la salvedad de que el año 2014 es el primer ejercicio en que no se practicarán devoluciones extraordinarias al Estado por el caso de la empresa Rover.

Así, los recursos disponibles de la Diputación Foral de Gipuzkoa de 2014 (recaudación por tributos concertados menos Compromisos Institucionales) ascenderían a 617 millones de euros, que suponen un incremento del 7,9% respecto a 2013.